

Momentuaz gozatu ala argazkia egin?

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua

Zer nahiago duzu, momentu berezi batez gozatu ala momentu hori erretratatu besteei erakusteko? Argazkiak nonnahi, noiznahi eta uneoro egiteko ohituraz arituko gara jarduera honetan.



1- Argazkizaleak

Ikusi bideoa eta transkripzioaren hutsuneak bete hitz egokiak jarritz.

1. Argazki asko ateratzen dituzu?

Marian Mangas: Ba egia da asko ateratzen ditudala, asko, asko, bai, _____ naiz.

Ibai Lasarte: Bai, batzuetan ateratzen ditut, normalean, bidaian, baina _____ ere bai argazkiak ateratzen dira.

2. Momentuaz gozatzen dugu edo argazki on bat atera nahi izaten dugu?

Marian Mangas: Nik uste dut, _____, saiatzen garela argazki on bat ateratzen. Pena bat da esatea, baina horrela ibiltzen gara nik uste denok. Eta gero, une horretan ez garela disfrutatzen (ari). Adibidea erraza da: saiatzen baldin bazara, egunen batean, orain dela hilabeteko momentu batekin gogoratzen, zein izan zen, non izan zen, zeinekin egin nituen argazki batzuk, ezin dituzu gogoratu, ez zara akordatzen momentu horrekin. Gero ikusi behar dituzu argazkiak, bestela... Eta horrek esan nahi du momentu horretan, zure burua ez zegoela.

Ibai Lasarte: Momentuaz beti gozatzen dugu, baina gero beti nahi dugu _____ argazki bat. Gero ere bai, pasatzen da, bidaian eta zabiltzanean, azkenean beti oroitzapen bat eraman nahi duzula, baina, klaro, sentimenduak, bizipenak ez dira isladatzen argazkian. Orduan, momentuaz ere gozatu behar da.

3. Lehen ez ziren hainbeste argazki ateratzen, gehiago gozatzen zuten?

Marian Mangas: Askoz gehiago, askoz gehiago, askoz gehiago. Eta gainera, egiten genituen argazkiak, nahiz eta gutxi izan, denak ditugu paperean inprimatuta, eta gaur egun ez ditugu inprimatzen. Eta argazkirik onenak, buruan daude, _____ barruan daude argazkirik onenak; ez daude ez paperean, ez ordenagailuan.

Ibai Lasarte: Ez dut uste, ze garai batean, kamera bat azkenean luxu bat zen, orain denok daukagu eskura gure poltsikoan kamera bat, mobil guztiek dute argazki-kamera. Eta lehen ere bai, argazkia ateratzea ere bai garestia zen, ze ez zenuen ikusten zer ateratzen zenuen, eta orain atera ditzakezu mila argazki, eta mila horietatik aukeratu berrehun.

4. Zer da selfie bat? Ateratzen dituzu?

Marian Mangas: Ez, oso gutxitan, oso gutxitan.

Ibai Lasarte: Bai, ateratzen ditut, eta, normalean, ateratzen ditut bakarrik bidaiatzen dudanean, edo sare sozialetara igotzeko, eta 'selfie' hitza orain egin da ezaguna, baina kamerak existitu direnetik argazkia ateratzeko era bat da, da _____ bere buruari ateratzen dion argazkia.

2- Selfia ala hil

Irakurri erreportajea osorik eta aukeratu hitz egokia hutsune bakoitzerako.

Oporretara joaten garenean, askotan, garrantzitsuena bueltan ekarritako argazkiak **erakustea / erakusten / erakutsi** izaten da, eta ez bertan bizitakoa edo sentitutakoa kontatzea. Iguazuko ur-jauzia, New Yorkeko etxe-orratzak, Veneziako San Markos plaza, Vietnameko janari-merkatua, Serengetiko lehoia... Leku horietan gaudenean, ez al dugu askotan momentua galtzen argazkia egiteko?

Urtetik urtera kamerak gero eta eskuragarrigoak bihurtu dira guretzat, nahi adina argazki ateratzen ditugu eta, gainera, kalitatea hobetu egin da. Horrez gain, denok dugu mugikorra gure poltsikoan, eta horrekin ere argazkiak **atera / ateratzen / ateratzea** ditzakegu, baita tabletarekin ere. Teknologia berriei esker, goitik behera aldatu da alor hau.



Noiznahi egiten dugu klik, eta edozein izan daiteke arrazoia: autobusa berandu datorrela, klik, argazkia; gazta-tarta goxo bat bazkaldu dudala, klik, argazkia; pisu bat salgai dagoela, klik, argazkia; oina putzuan sartu eta blai egin naizela, klik, argazkia. Lehen baino gehiago egiten ditugu, bai, baina lehen baino gutxiago inprimatzen ditugu. Edo ateratako argazki horietatik, mobilean dituzun giga guztietatik, paperean zenbat dituzu?

“Argazkizalea naiz, argazki asko egiten ditut”, kontatu digu Marian Mangasek. Azpeitiko San Martin adinekoen egoitzako psikologoa da, eta, bere ustez, “orokorrean, guztiok saiatzen gara argazki on

bat **atera / ateratzen / ateratzea** ". Ibai Lasarte informatikaria da eta teknologia berriekin egiten du lan. "Bidaietan ateratzen dut argazki gehien, baina egunerokotasunean ere bai", aitortu digu.

Galdera bera egin diegu bie: "Momentuaz gozatzen dugula uste duzu edo argazki on bat atera nahi izaten dugu?", baina erantzunak oso desberdinak izan dira. Marianen ustez, argazkia axola zaigu, eta ez dugu uneaz gozatzen. "Aspaldiko momentu bat **gogoratu / gogoratzen / gogoratzea** saiatzen bagara, ez gara gai, eta, horretarako, argazkiari begiratu behar izaten diogu. Beraz, momentuan burua beste nonbait eduki genuen", azaldu digu.

Lasartek, ordea, argi du: "Beti gozatzen dugu, baina argazki batekin betikotu nahi izaten dugu bizitakoa. Argazkian ez dira sentimenduak eta bizipenak islatzen, eta, horregatik, egiten ari garena **gozatzea / gozatu / gozatzen** behar dugu".

'SELFIE' BAT EGINGO DUGU?



Modan dago 'selfie' hitza. Mobilarekin edo kamerarekin egindako autoerretratu bat da, eta, gaur egun, horretarako makil bat ere asmatu dute, norberak bere buruari klik **egitea /egin / egiteko** errazteko. Mangasek ez du mota honetako argazkiak ateratzeko ohiturarik, baina Ibaik bai. "Normalean, bakarrik bidaiatzen dudanean ateratzen ditut, edo sare sozialetarako ere bai".

Baina geure buruari erretratu bat **egitea /egin / egiten** arriskutsua izan daiteke.

Carnegie Mellon unibertsitate estatubatuarrak eta New Delhiko Indaprasth institutuak ikertu egin dute horren inguruan. Horien arabera, azken urteetan, Indian, 76 pertsona hil dira horrelako argazki bat ateratzen ari zirela. 2015ean, handiagoa izan da arrazoi honengatik hildako lagunen kopurua, mundu guztian marrazoek eragindako heriotza-kopurua baino. Selfieak egiteko arrazoi nagusia zein den ere argitu du ikerketa honek: sare sozialetan ahalik eta "atsegin dut" gehien eskuratu nahi dituzte. Horregatik arriskatzen dute euren burua, ahalik eta argazkirik ikusgarriena **ateratzen / ateratzeko / ateratzea** asmoz, baina, hala ere, ez dakite zergatik dagoen hildakoen kopururik handiena Indian. Herrialdearen iparraldean, adibidez, hiru ikasle hil ziren tren batek harrapatuta trenbidean argazki bat ateratzen ari ziren bitartean, eta beste ikasle bat, berriz, harkaitz baten gainean zegoen, harria amildegi batetik behera jausi zenean.

Zerrenda horretan India dago lehenengo postuan, bai, baina jarraian Pakistan dago, bederatzi heriotzarekin, Estatu Batuak zortzirekin, eta Errusia, seirekin. Beraz, hurrengoan Taj Mahalera edo Plaza Gorrira joatean, kontuz selfie bat ateratzerakoan, arriskutsua izan daiteke-eta. Edo zuk ez dituzu autoerretratuak atsegin? Bestelako argazki asko ateratzen dituzu? Zure ustez, momentuaz gozatzen dugu edo argazkiak egin nahi izaten ditugu? Zer uste duzu, lehen ere horrela izaten zela?

3- Eta zuk?


Kontatu ahoz zure esperientzia eta grabatu zure konakizuna. Ondorengo galderak lagungarriak izan daitezke zure mintzaldia ordenatzeko.



- Argazki asko ateratzen dituzu?
- Leku eder batera iristen zara, argazkia atera behar duzu?
- Nola daramazu argazki asko ateratzen dituztenekin oporretara joatea?
- Faltan somatzen duzu argazkiak ateratzeko lehengo modua?
- Argazkiak laguenkin partekatzen dituzu?

4- Selfie ikusgarriak

Lotu ondorengo selfiak dagokien argazki oinarekin



- Harrapatzen bazaitu, jo eta bertan hilko zaitu.
- Ai ene! Ez nuen honelako erasorik espero!
- Nik ere atera nahi dut argazkian.
- Txapeldunen selfirik arrakastatuena.
- Oihaneko guapoena naiz.
- Filmetako protagonistak dira denak.

5- Argazkia arazo-iturri

Irakurri segidan duzun testua eta erantzun galderei. Laguntza moduan, testuan irakurri ahal izango dituzun hainbat hitz dituzu hemen:

HIZTEGIA

ARGAZKI-KAMERA.- Cámara de fotos.

AUZI.- Disputa, discordia.

BAIMENIK GABE.- Sin permiso.

EGILE-ESKUBIDEAK.- Derechos de autor.

EZTABAIDA SORTU.- Crear polémica.

JABARI PUBLIKO IZAERA EDUKI/IZAN.- Tener condición de dominio público.

JABETZA.- Propiedad.

NORK BERE BURUARI ARGAZKIA ATERA.- Sacar(se) una foto a sí mismo.

OIHAN.- Selva.

TXIMINOARENA BERARENA.- Del mismo mono/a.



Tximino batek selfie bat ateratzen badu, norena da argazkia?

Hauxe da egoera: Argazkilari bat Indonesiako oihanean, 2011. urtean, argazki-kamera bat, tximino bat eta honek ateratako argazki bat. Wikipedian jarri zuten tximinoak bere buruari ateratako argazkia, baina jabetzarekin eztabaida sortu zen. Norena da argazkia, argazki-kameraren jabearena ala tximinoarena berarena?

Estatu Batuetako egile-eskubideen bulegoak honelako argazkiak jabari publiko izaera dutela erabaki du.

David Slater argazkilaria oihanean ari zen lanean 2011. urtean, argazkiak ateratzen. Tximino batek bere kamera hartu eta argazki bat atera zion bere buruari. Hau da, selfie bat atera zuen. Badirudi argazkia Wikimedia Commonsera igo zuela norbaitek argazkilariaren baimenik gabe, eta hiru urte beranduago erabaki da argazkilariak eta Wikipediak izan duten auzia.

Argazkilariak bere autore-eskubideak urratu zirela esan zuen, eta argazkia kentzeko eskatu zion Wikipediari behin baino gehiagotan. Wikipediatik ezetz erantzun zioten, argazkia ez zuelako berak atera, tximinoak baizik!

Selfie bat izanda, David Slaterrek eskubide guztiak galdu omen ditu eta, ondorioz, Estatu Batuetako egile-eskubideen bulegoak erabaki du argazki horrek jabari publiko izaera duela.

Testua arretaz irakurri ondoren, esan baieztapen hauek EGIA ala GEZURRA diren:

- 1- *David Slater argazkilaria oporretara joan zen Indonesiako oihanera.*
 - Egia
 - Gezurra
- 2- *Argazkilariak bidaia hartan tximino bati atera zion argazkiak polemika sortu du.*
 - Egia
 - Gezurra
- 3- *Oihaneko tximinoetako batek argazki-kamera hartu eta bere buruari atera zion argazkia.*
 - Egia
 - Gezurra
- 4- *Tximinoaren argazkia Wikipedian jarri zuen ezezagun batek.*
 - Egia
 - Gezurra
- 5- *David Slaterrek Wikipediak dirua ordaintzea nahi zuen.*
 - Egia
 - Gezurra
- 6- *Wikipediak hasieratik onartu zuen argazkiaren jabetza David Slaterrena zela.*
 - Egia
 - Gezurra
- 7- *Estatu Batuetako egile-eskubideen bulegoak arrazoia eman dio Slaterri.*
 - Egia
 - Gezurra

6- Zure iritzia

Orain, eman idatziz zure iritzia tximinoaren auziari buruz. Ondorengo galderak lagungarriak suertatu ahal zaizkizu.

- *Gustatzen al zaizu tximinoaren selfiea? Zergatik uste duzu egin dela hain famatu?*
- *Bat al zatoz argazki honen inguruan hartu den erabakiarekin? Zergatik?*
- *Zer egingo zenuke zuk David Slater bazina?*

.....

.....

.....

.....

.....

.....

1- Argazkizaleak

1. Argazki asko ateratzen dituzu?

Marian Mangas: Ba egia da asko ateratzen ditudala, asko, asko, bai, (**argazkizalea**) naiz.

Ibai Lasarte: Bai, batzuetan ateratzen ditut, normalean, bidaiari, baina (**egunerokotasunean**) ere bai argazkiak ateratzen dira.

2. Momentuaz gozatzen dugu edo argazki on bat atera nahi izaten dugu?

Marian Mangas: Nik uste dut, (**orokorrean**), saiatzeko gara argazki on bat ateratzen. Pena bat da esatea, baina horrela ibiltzen gara nik uste denok. Eta gero, une horretan ez gara disfrutatzen (ari). Adibidea erraza da: saiatzeko baldin bazara, egunen batean, orain dela hilabeteko momentu batekin gogoratzen, zein izan zen, non izan zen, zeinek egin nituen argazki batzuk, ezin dituzu gogoratu, ez zara akordatzeko momentu horrekin. Gero ikusi behar dituzu argazkiak, bestela... Eta horrek esan nahi du momentu horretan, zure burua ez zegoela.

Ibai Lasarte: Momentuaz beti gozatzen dugu, baina gero beti nahi dugu (**betikotu**) argazki bat. Gero ere bai, pasatzen da, bidaiari eta zabiltzanean, azkenean beti oroitzapen bat eraman nahi duzula, baina, klaro, sentimenduak, bizipenak ez dira isladatzen argazkian. Orduan, momentuaz ere gozatu behar da.

3. Lehen ez ziren hainbeste argazki ateratzen, gehiago gozatzen zuten?

Marian Mangas: Askoz gehiago, askoz gehiago, askoz gehiago. Eta gainera, egiten genituen argazkiak, nahiz eta gutxi izan, denak ditugu paperean inprimatuta, eta gaur egun ez ditugu inprimatzen. Eta argazkirik onenak, buruan daude, (**burmuinaren**) barruan daude argazkirik onenak; ez daude ez paperean, ez ordenagailuan.

Ibai Lasarte: Ez dut uste, ze garai batean, kamera bat azkenean luxu bat zen, orain denok daukagu eskura gure poltsikoan kamera bat, mobil guztiek dute argazki-kamera. Eta lehen ere bai, argazkia ateratzea ere bai garestia zen, ze ez zenuen ikusten zer ateratzen zenuen, eta orain atera ditzakezu mila argazki, eta mila horietatik aukeratu berrehun.

4. Zer da selfie bat? Ateratzen dituzu?

Marian Mangas: Ez, oso gutxitan, oso gutxitan.

Ibai Lasarte: Bai, ateratzen ditut, eta, normalean, ateratzen ditut bakarrik bidaiatzen dudanean, edo sare sozialetara igotzeko, eta 'selfie' hitza orain egin da ezaguna, baina kamerak existitu direnetik argazkia ateratzeko era bat da, da (**norberak**) bere buruari ateratzen dion argazkia.

2- Selfia ala hil

Oporretara joaten garenean, askotan, garrantzitsuena bueltan ekarritako argazkiak (**erakustea**) izaten da, eta ez bertan bizitakoa edo sentitutakoa kontatzea. Iguazuko ur-jauzia, New Yorkeko etxe-orratzak, Veneziako San Markos plaza, Vietnameko janari-merkatua, Serengetiko lehoia... Leku horietan gaudenean, ez al dugu askotan momentua galtzen argazkia egiteko?

Urtetik urtera kamerak gero eta eskuragarriagoak bihurtu dira guretzat, nahi adina argazki ateratzen ditugu eta, gainera, kalitatea hobetu egin da. Horrez gain, denok dugu mugikorra gure poltsikoan, eta horrekin ere argazkiak (atera) ditzakegu, baita tabletarekin ere. Teknologia berriei esker, goitik behera aldatu da alor hau.

Noiznahi egiten dugu klik, eta edozein izan daiteke arrazoa: autobusa berandu datorrela, klik, argazkia; gazta-tarta goxo bat bazkaldu dudala, klik, argazkia; pisu bat salgai dagoela, klik, argazkia; oina putzuan sartu eta blai egin naizela, klik, argazkia. Lehen baino gehiago egiten ditugu, bai, baina lehen baino gutxiago inprimatzen ditugu. Edo ateratako argazki horietatik, mobilean dituzun giga guztietatik, paperean zenbat dituzu?

“Argazkizalea naiz, argazki asko egiten ditut”, kontatu digu Marian Mangasek. Azpeitiko San Martin adinekoen egoitzako psikologoa da, eta, bere ustez, “orokorrean, guztiok saiatzen gara argazki on bat (ateratzen)”. Ibai Lasarte informatikaria da eta teknologia berriein egiten du lan. “Bidaietan ateratzen dut argazki gehien, baina egunerokotasunean ere bai”, aitortu digu.

Galdera bera egin diegu bie: “Momentuaz gozatzen dugula uste duzu edo argazki on bat atera nahi izaten dugu?”, baina erantzunak oso desberdinak izan dira. Marianen ustez, argazkia axola zaigu, eta ez dugu uneaz gozatzen. “Aspaldiko momentu bat (gogoratzen) saiatzen bagara, ez gara gai, eta, horretarako, argazkiari begiratu behar izaten diogu. Beraz, momentuan burua beste nonbait eduki genuen”, azaldu digu.

Lasartek, ordea, argi du: “Beti gozatzen dugu, baina argazki batekin betikotu nahi izaten dugu bizitakoa. Argazkian ez dira sentimenduak eta bizipenak islatzen, eta, horregatik, egiten ari gara (gozatu) behar dugu”.

‘SELFIE’ BAT EGINGO DUGU?

Modan dago ‘selfie’ hitza. Mobilarekin edo kamerarekin egindako autoerretratu bat da, eta, gaur egun, horretarako makil bat ere asmatu dute, norberak bere buruari klik (egitea) errazteko. Mangasek ez du mota honetako argazkiak ateratzeko ohiturarik, baina Ibaik bai. “Normalean, bakarrik bidaiatzen dudanean ateratzen ditut, edo sare sozialetarako ere bai”.

Baina geure buruari erretratu bat (egitea) arriskutsua izan daiteke. Carnegie Mellon unibertsitate estatubatuarra eta New Delhiko Indaprasth institutuak ikertu egin dute horren inguruan. Horien arabera, azken urteetan, Indian, 76 pertsona hil dira horrelako argazki bat ateratzen ari zirela. 2015ean, handiagoa izan da arrazoi honengatik hildako lagunen kopurua, mundu guztian marrazoek eragindako heriotza-kopurua baino. Selfieak egiteko arrazoi nagusia zein den ere argitu du ikerketa honek: sare sozialetan ahalik eta “atsegin dut” gehien eskuratu nahi dituzte. Horregatik arriskatzen dute euren burua, ahalik eta argazkirik ikusgarriena (ateratzeko) asmoz, baina, hala ere, ez dakite zergatik dagoen hildakoen kopururik handiena Indian. Herrialdearen iparraldean, adibidez, hiru ikasle hil ziren tren batek harrapatuta trenbidean argazki bat ateratzen ari ziren bitartean, eta beste ikasle bat, berriz, harkaitz baten gainean zegoen, harria amildegi batetik behera jausi zenean.

Zerrenda horretan India dago lehenengo postuan, bai, baina jarraian Pakistan dago, bederlatzi heriotzarekin, Estatu Batuak zortzirekin, eta Errusia, seirekin. Beraz, hurrengoan Taj Mahalera edo Plaza Gorrira joatean, kontuz selfie bat ateratzerakoan, arriskutsua izan daiteke-eta. Edo zuk ez dituzu autoerretratuak atsegin? Bestelako argazki asko ateratzen dituzu? Zure ustez, momentuaz gozatzen dugu edo argazkiak egin nahi izaten ditugu? Zer uste duzu, lehen ere horrela izaten zela?

4- Selfie ikusgarriak

1-a, 2-c, 3-e, 4-d, 5-f, 6-b

5- Argazkia arazo-iturri

- 1- *David Slater argazkilaria oporretara joan zen Indonesiako oihanera.*
 - Gezurra
- 2- *Argazkilariak bidaia hartan tximino bati atera zion argazkiak polemika sortu du.*
 - Gezurra
- 3- *Oihaneko tximinoetako batek argazki-kamera hartu eta bere buruari atera zion argazkia.*
 - Egia
- 4- *Tximinoaren argazkia Wikipedian jarri zuen ezezagun batek.*
 - Egia
- 5- *David Slaterrek Wikipediak dirua ordaintzea nahi zuen.*
 - Egia
- 6- *Wikipediak hasieratik onartu zuen argazkiaren jabetza David Slaterrena zela.*
 - Gezurra
- 7- *Estatu Batuetako egile-eskubideen bulegoak arrazoia eman dio Slaterri.*
 - Gezurra